

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ebazpena, autonomoentzako txeketa izeneko laguntzen udal-programaren 2025eko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak bigarren aldiz handitzea onesteko

I. 2025eko martxoaren 21ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko "Autonomoentzako txeketa" izeneko laguntza-programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak (2025eko apirilaren 25eko ALHAO, 46. zenbakia), konkurrentzia sinplearen prozeduraren bidez izapidetzeko. Halaber, 2025eko uztailaren 18an, oinarri horien akatsen zuzenketa argitaratu zen.

II. Aipatutako deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak 100.000,00 euro dira guztira, 2025erako udal aurrekontuko 2025/08.21.4331.489.50 (Autonomoentzako txeketa) partidaren kontura.

III. 2025eko azaroaren 7an, deialdiaren lehen ebazpena eman zuen Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, 2025eko irailaren 8ra arte jasotako eta inolako zuzenketarik behar izan ez zuten eskabideei buruzkoa, deialdiaren 12. oinarrian xedatutakoari jarraikiz (2025eko azaroaren 19ko ALHAO, 132 zenbakia). Lehen fase honetan onuradun guztiei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoen batura 27.840,00 euro izan denez, 72.160,00 euroko soberakina izan da bigarren faserako.

IV. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2025eko azaroaren 21ean emandako ebazpenaren bidez (2025eko abenduaren 10eko ALHAO, 140. zenbakia), erabaki zen 30.000,00 euro gehitzea autonomoen txeketaren 2025eko udal-programa finantzatzeko baliabide ekonomikoetara, bat etorri deialdiaren zazpigarren oinarrian eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan aurreikusitakoarekin. Beraz, zuzkidura handitu ondoren, 102.160,00 euroko soberakina geratu zen bigarren fase baterako.

V. 2026ko apirilaren 22an, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak txostena egin zuen. Bertan, Autonomoentzako Txeketaren 2025. urteko udal-programarako zuzkidura ekonomiko osoa bigarren aldiz handitzea proposatzen da, izan ere baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei laguntzeko borondate politikoa dago.

Aipatutako txostenak argudiatzen duenez, enpresak sortzeko eta sendotzeko laguntzen 2025eko aurrekontuko 0821.4331.48967 partidak 51.582,94 euroko soberakina du, eta ez dago eragindako gasturik egiteke. Geldikin hori 2026ko aurrekontuan sartu da, 2026/0821.4331.48967/R aurrekontu-aplikazioan (enpresak sortzeko eta sendotzeko laguntzak).

Beraz, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikulua aukera ematen du deialdiaren zuzkidura handitzeko laguntzak ebatzi aurretik, baldin eta Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak kudeatutako deialdiaren batean soberako kreditua egonez gero eta sail horretako zinegotzi ordezkariak ebazpena eman ondoren. Horrenbestez, 2025. urteko autonomoentzako txeketa finantzatzeko baliabide ekonomikoak 22.640,00 eurotan handitzeko eskatzen da, 2026/0821.4331.489.67/R partidaren (enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntzak) transferentziaren bidez.

Horrela, 2025. urteko aurrekontu-partidetako geldikinak 2026ko aurrekontuan sartu ondoren, eta 2026/0821.4331.489.67/R partidatik (enpresak sortzeko eta sendotzeko laguntzak) datorren 22.640,00 euroko transferentzia egin ondoren, 2026/08.21.4331.489.50/R partidak – autonomoentzako txeke izenekoak– 124.800,00 euroko zenbatekoa du.

Hasieran aurreikusitako kreditua baino kreditu handiagoa dagoela egiaztatu da, geldikinak sartu ondoren erabilgarri dagoen kredituaren ondorioz. Horretaz gain, deialdia ebatzi gabe dago oraindik.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horien baldintzak onesteko eskumena, bai eta dagozkion aldaketak egitekoa ere, haren egitekoa baita ekonomi kudeaketa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategi Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzen 5.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Deialdiaren zazpigarren oinarriaren adierazitakoaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio aipatutako eskumena, ebazpen honen xedapen-zatian adierazitako ondorioei dagokionez,

Ebatzi dut

Lehena. 22.640,00 euro handitzea Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko martxoaren 18ko erabakiaren bitartez onetsitako autonomoentzako txekeak izeneko 2025eko laguntza-programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak.

Horrenbestez, 124.800,00 euroko baliabide ekonomikoa dago udalaren laguntza-programa horretarako.

Bigarrena. 22.640,00 euroko zenbatekoa kontsignatzea 2026/0821.4331.489.50/R partidaren (Autonomoentzako txekea), 2026/0821.4331.489.67/R aurrekontu-partidaren soberakinean erabilgarri dagoen kreditu-saldoaren kontura (enpresak sortzeko eta sendotzeko laguntzak).

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta Udalaren webgunean argitara dadila agintzea, erabakitakoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean jasota utzi ondoren.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 29an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
MARIA NANCLARES CABALLERO